

AHOTS BAT, MILIOI BAT ALDAKETA

Imajinatzen al duzu zer gertatuko litzatekeen gure ahotsa erabiltzen dugun bakoitzean mundua eraldatuko bagenu? Eta fantasia dirudien arren, hau egiten dugu jada, Beti, egunero: kaletik doan ezezagun bati egun on bat opa diozunean, egun txar bat izan duen lagun bati animo hitzak esatean, injustizia bat ikustean hura aldatzeko ahotsa altxatzen dugunean; gure ahotsak etengabe ematen digu beldurrez bizi diren guztien alde hitz egiteko aukera, lotsa sentitzen dutenen alde edo itxaropena galdu dutenen alde. Erantzukizun handia daraman botere paregabe bat dago gure baitan, zeren, gure ahotsak arima zauritu bat senda dezakeen bezala; era berean, sakonetik zerbait edo norbait mindu, kaltetu, edo alda dezake. Milioi bat aldaketa baino gehiago sortzeko garaia da, baketik, elkartasunetik eta maitasunetik sortuak, ahots bakar baten garaia da; zure ahotsak mundua alda dezake.

-Gure ahotsak garrantzia du gurea delako eta ez beste inorena, existitzen garelako, pentsatzen eta sentitzen dugulako. Gure ahotsa erabiltzeak geure burua baino handiagoa den zerbaiten parte garela atzemateko aukera ematen digu.

Bakoitzaren ahotsak batzean beti kolektibo bat sortzen dute, ahots indartsuagoa sortzen dute, berdin pentsatzen dutenekin edo berdin sentitzen dutenekin sintonizatzekeo aukera ematen digute. Eta errealitate hauek bistaratzeko, bete-betean jartzeko eta gizarte handi baten parte izateko aukera ematen digu.

Dena aldatzen da. Nola, zergatik eta zertarako da benetan garrantzitsua dena. Ahots baten jabe garela aitortzea, galdera horiei erantzun egokiak ematen dizkiegun errealitate konkretu bat alda dezakegula jakitea da.

Hitz egiten ez den zerbait dagoenean, existituko ez balitz bezala da; existitzen den eta hitz egiten den zerbait dagoenean, ikusgarri bihurtzen denean da; eta gauzak ikusgarri jartzeak partekatzekeo, eztabaidatzeko eta aldatzeko aukera ematen digu.

Denok dugu eragina behin baino gehiagotan, gure ahotsa ustekabeko lekuetara iritsi daiteke, gure ahotsa gure ideia eta sentimenduetara edo beste norbaiten sentimenduetara

iristen diren hitzetara itzultzen da, eta horrek ekintza oso zehatzak sortu ditzake. Horietako batzuek, zalantzarik gabe, historiaren ibilbidea aldatuko dute.

Errealitatea eraldatzeko, ahots bakarra behar duzu, zeurea. Ahots horren bidez alda daitekeen guztia adierazteko duzun ausardia, zure iritzia emateko zurtasuna eta behar bezalakoa ez den guztiaren aurka protesta egiteko ausardia.. Hasi, zeren: ahots bakar batek milioi bat aldaketa sor ditzake.